

GRADUA: ENPRESEN ADMINISTRAZIO ETA ZUZENDARITZAKO GRADUA

2021/2022 ikasturtea

PENTSIO SISTEMA PUBLIKOAREN ERREFORMA: ABENDUAREN 28ko 21/2021 LEGEA

Egilea: Nahia Larrañaga Valle

Zuzendaria: Ainara Arsuaga Uriarte

Bilbon, 2022ko ekainaren 24an



I. AURKIBIDEA

LABURPENA.....	4
ABSTRACT	4
1. SARRERA.....	5
2. TESTUINGURUA	5
3. ERREFORMAREN NONDIK NORAKOAK.....	6
3.1 PENTSIOEN ERREBALORIZAZIOA.....	6
3.2 ERRETIRO AURRERATUEN ARLOKO ALDAKETAK.....	7
3.2.1 Nahitaezko erretiro aurreratua.....	8
3.2.2 Borondatezko erretiro aurreratua	14
3.2.3 Jardueraren ondoriozko erretiro aurreratua.....	18
3.2.4 Erretiro aurreratua desgaitasun bat izanez gero	18
3.3 AKTIBOKO LANGILEEN IRAUNKORTASUNA SUSTATZEA	18
3.3.1 Borondatezko Erretiro Atzeratua	19
3.3.2 Erretiro Aktiboa	20
3.3.3 Kotizazioetan pizgarriak adineko langileen kasuetan	20
3.4 ERRETIRO ARRUNTA.....	21
3.4.1 Nahitaezko erretiro arrunta	21
3.5 BELAUNALDI ARTEKO EKITATE-MEKANISMOA.....	22
4. ADIBIDEAK.....	23
4.1 Adibidea: Erretiro arrunta eta Nahitaezko erretiro aurreratua.....	24
4.2 Adibidea: Erretiro arrunta eta Nahitaezko erretiro aurreratua	27
4.3 Adibidea: Erretiro arrunta eta Borondatezko erretiro aurreratua.....	27
4.4 Adibidea: Erretiro arrunta eta Borondatezko erretiro aurreratua.....	28
4.5 Adibidea: Borondatezko erretiro atzeratua	31
5. ONDORIOAK.....	35
6. BIBLIOGRAFIA	37

II. TAULEN AURKIBIDEA

Taula 1. Erretiro adinak eta kotizazioaldiak (2022-2027).....	8
Taula 2. Nahitaezko erretiro aurreratua. Koefiziente murriztaileak	10
Taula 3. Oinarri arautzaileari aplikatu beharreko ehunekoak.....	13
Taula 4. Borondatezko erretiro aurreratua. Koefiziente murriztaileak	14
Taula 5. Ordezkapen Tasak.....	30
Taula 6. Borondatezko erretiro atzeratua I.	33
Taula 7. Borondatezko erretiro atzeratua II	35

Laburduren eta akronimoen zerrenda

KPI	Kontsumorako Prezioen Indizea
BPG	Barne Produktu Gordina
EEE	Enplegu Erregulazioko Espedienteak
NBE	Nazio Batuen Erakundea

LABURPENA

Lan honetan, Espainiako pentsio sistema publikoaren iraunkortasuna bermatzeko ahaleginetan aurrera eraman den azken erreformaren lehenengo zatia aztertuko da. Biztanleriaren zahartzeak, baina batez ere, Baby Boom-eko belaunaldiak erretiroa hartzen hasteak, finantza presio handia eragingo du pentsio sisteman hurrengo urteetan. Egoera horri irtenbide bat emateko, aztertuko den legeak, Gizarte Segurantzako Lege Orokorrean zenbait aldaketa burutu ditu gai hauen inguruan: pentsioak errebalorizatzeko eran, erretiratzeko dauden modalitate ezberdinetan eta gainera, belaunaldi arteko ekitate mekanismoa sortu du. Azalpen teoriko eta zenbait adibide praktikorekin pentsio sisteman egin eta egingo diren aldaketak modu erraz batean ulertaraztea da lan honen helburua, egungo gizarteari interesa eta aldi berean kezka pizten dion gai bat delako pentsio sistemaren iraunkortasuna.

ABSTRACT

This paper will analyse the first part of the last reform carried out in the efforts to guarantee the sustainability of the public pension system in Spain. The aging of the population, but above all the beginning of retirement by the Baby Boom generation, will generate strong financial pressure on the pension system in the coming years. To find a way out of this situation, the law under analysis introduces a series of changes in the general Social Security law concerning the revaluation of pensions, the different retirement modalities, and the creation of an intergenerational equity mechanism. With a theoretical explanation of the reform and a series of practical examples, the aim of this work is to provide a simple understanding of the changes that will take place in the pension system, since the sustainability of the pension system is an issue of interest and concern to today's society.

1. SARRERA

Duela hamarkada batzuetatik jada ohartarazi da egun daukagun pentsio sistema publikoaren iraunkortasunaren arazoez; izan ere, bizi-itxaropenaren hazkundeak eta jaiotza-tasa txikiek biztanleria zahartzea ekarri dute. Datuetara jo ezkerro, NBEren arabera, 2050erako, Europan eta Ipar Amerikan bizi diren lau pertsonetatik batek, 65 urte edo gehiago eduki ahalko ditu (NBE, 2019).

Biztanleriaren zahartze horrek, kolokan jarri du herrialde askotako pentsio sistema, Espainiaren kasuan adibidez; zeren, Espainiar pentsio sistema publikoaren ezaugarrietako bat banaketa sistema batean oinarrituta dagoela da; hau da, lanean dauden pertsonak sortzen dituzten kotizazioekin, Gizarte Segurantzak kudeatuta, erretiratuek erretiroa hartzerakoan jasotzen dituzten zenbatekoak finantzatzen dira. Ondorioz, langile bakoitza momentuan kotizatzen ari denarekin ez da bere erretiro-pentsioa bermatzen ari, momentuan erretiratzen diren pentsiodunak bermatzen ari da. Beraz, banaketa sistema batek ondo funtziona dezan, beharrezkoa da lanean daudenen langileen kopurua pentsiodunen kopurua baino handiagoa izatea, eta biztanleriaren zahartzeak hari-harian jartzen du baldintza hori eta ondorioz, sistemaren iraunkortasuna ere.

Arazo hau berria ez denez, urteetan zehar Espainiako pentsio sistema aldatuz joan da garai bakoitzeko behar ekonomiko, sozial eta politikoei aurre egin ahal izateko.

Hori kontuan izanda, lan honen helburua egun Espainiar estatuan dugun pentsio sistema publikoaren inguruan adostu den azken erreformaren puntu adierazgarrienen azterketa bat egitea da; konkretuki, 21/2021 Legea, abenduaren 28koa, pentsioen erosahalmen eta pentsioen sistema publikoaren iraunkortasun finantzario eta soziala indartzeko beste neurri batzuk lege proiektuarena.

Azterketa egiteko abiapuntua aipatutako legea izanda, lana honela egituratuko da. Lehendabizi erreformaren testuingurua aipatuko dugu, erreforma hau egitearen zergatia ulertu ahal izateko. Ondoren, 2021eko abenduaren 28an onartutako legearen nondik norakoak azalduko ditugu eta bukatzeko erreforma berri honen eragina praktikara eramango dugu, zenbait adibide landuz, momentuko erretiratuen pentsioetan ekarriko dituen aldaketak ikusi ahal izateko.

2. TESTUINGURUA

Erreforma honen testuinguruari dagokionez, bi akordio aintzat hartu behar ditugu, bertatik ateratako erabakiak aztertuko den legera eraman direlako. Alde batetik, 2020ko azaroaren

19an Diputatuen Kongresuan onartu zen Toledoko Itunaren¹ ebaluazio eta erreforma txostena, eta bestetik, 2021eko uztailaren 1ean, Gobernuak eta gizarte-eragileek adostutako Gizarte-Segurantzaren zenbait erreforma.

Horrez gain, erreforma hau Gobernuak Europar Batzordera bidalitako Berreskuratze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren 30. osagarrian barneratzen da. Aipatutako plana, bide-orri bat da, Espainiako ekonomia modernizatzeko, hazkunde ekonomikoa suspertzeko eta enplegua sortzeko. Helburua, Covid 19ak eragindako osasun krisiaren ondoren ekonomia sendo, inklusibo eta erresiliente bat berreraikitzea eta hurrengo hamarkadako erronkei erantzutea da. Plan hau, Europar Batzordeak, pandemiaren ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko sortutako erreserba fondoetara heldu ahal izateko estatu bakoitzeko kideei eskatutako plana da. Espainiari 140.000 milioi dagozkio eta mailegu eta itzulgarriak ez diren transferentzien bitartez jasoko ditu 2026.urtera arte (Dirección General de Fondos Europeos, 2021). Beraz garrantzitsua da planaren barruan dauden neurriak adostu eta aurrera eramatea, funts hauek lortu ahal izateko.

Hala ere, ezin dugu ahaztu, erreforma honek bere baitan jasotzen duela biztanleriaren zahartzeak pentsioen sisteman sortzen duen arazoaz, eta ondorioz, arretan handia jarri zaie urte gutxi barru Espainiar historiako belaunaldi handieneko biztanleei “Baby boomers²” deituak, erretiroa hartuko baitute. Honek erronka handia suposatuko du batez ere belaunaldi arteko konpromisoan oinarrituta dagoen pentsio ereduan.

3. ERREFORMAREN NONDIK NORAKOAK

Urtarrilaren 1ean martxan jarri zen erreforma honek, Gobernuak pentsioen erreformarako ezarri nahi dituen neurrien lehen sorta barneratzen du. Neurri horien artean puntu adierazgarrienak direnak aztertuko dira; hala nola, pentsioen errebalorizazioa, erretiro aurreratuari dagozkion aldaketa berriak, nahitaezko jubilazioetako klausulak mugatzea, erretiro adina atzeratzeko pizgarri berriak eta jasangarritasun-Faktorea indargabetzea besteak beste.

3.1 PENTSIONEN ERREBALORIZAZIOA

Errebalorizazioaren inguruan, erreforma honen bitartez, pentsioen zenbatekoaren eguneratzearen indexazioa berreskuratzen da KPI arabera.

¹ Toledoko Itunean, Diputatuen ganberak Gobernuari ematen dizkion 22 gomendio biltzen dira, datozen urteetan Gizarte-Segurantzaren sistemaren bideragarritasun eta iraunkortasuna babestu eta hobetzeko asmoz.

² Baby boomers-ak 1958 eta 1977 urteen bitartean jaiotako belaunaldia da. Garai horretan ia hamalau milioi haur jaio ziren, aurreko hogeitun baina 2,5 milioi gehiago eta hurrengo hogeitun baina 4,5 milioi gehiago. (Albellán eta Pujol, 2015)

23/2013 Legea, abenduaren 23koa, Gizarte Segurantzaren Pentsio Sistemaren Jasangarritasun Faktorea eta Errebalorizazio Indizea arautzen dituen, lege honek alde batera utzi zuen pentsioen errebalorizazio mekanismoa prezioen bilakaeraren arabera egitea. Horren ordez, pentsioen eguneratzea prestazioen ekarpenezko aldaeraren bilakaera ekonomikoaren arabera egingo zen. Eguneratze hori, urtero Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean aurreikusten zen pentsioen errebalorizazio-indizearen arabera.

2022ko erreforman eta Toledoko Itunaren 2. Gomendioari jarraituz, 2013an onartutako errebalorizazio sistema atzean utzi da berriro ere kontsumoko prezioen indizearen arabera balioa emanaz pentsioei.

Ondorioz, hurrengoak akordatu dira:

- Gizarte Segurantzako pentsio kontributiboak mantenduko dira, eta hauek, baita gutxieneko pentsioen zenbatekoak, urte bakoitzaren hasieran errebalorizatuko dira, batez besteko inflazioaren arabera, aurreko urteko abenduaren aurreko hamabi hilabeteetan erregistratutako KPI ehunekotan adierazita.
- Kontsumo prezioen indizearen aldaketaren batez besteko balioa negatiboa izango balitz, pentsioen zenbatekoa urte hasieran ez litzateke aldatuko.
- Gizarte Segurantzaren pentsioen urteko errebalorizazioaren zenbatekoak, behin errebalorizatu ondoren, ezin izango Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean ezarritako zenbatekoa baino handiagoa izan.

Horrela, 2022ko ekitaldia izango da aldaketa hau aplikatzen den lehen urtea, ondorioz 2020ko abendutik 2021eko azarora bitartean eman den inflazioaren batez bestekoa kontuan hartuko da. Horrela, pentsio kontributiboaren errebalorizazioa ekitaldi honetan %2,5 izango da.

Pentsioen erosahalmena mantentzeko asmoz, bost urtero behin ebaluazio bat egingo da urteroko errebalorizazioaren efektuak aztertzeko eta behar izatekotan hauek eguneratzeko.

3.2 ERRETIRO AURRERATUEN ARLOKO ALDAKETAK

Erretiro aurreratuak legez ezarrita dagoen erretiro adin arruntera iritsi aurretik gertatzen diren lan erretiroak dira. Erretiro aurreratuen arloan modalitate ezberdinak daude, baina lanean ondorengoak aztertuko dira: nahitaezko erretiro aurreratua, borondatezkoa, jardueraren ondoriozkoa eta desgaitasunen bat izateagatik erretiroa.

Erreforma berri honekin, erretiro-adinaren atzerapena sustatu nahi da, eta horretarako, erretiro aurreratuari dagokionez bi aldaketa nagusi antzeman ditzakegu.

Alde batetik, pentsioak zigortzen dituzten koefiziente murriztaile berriak argitaratu dira. Horrela, koefizienteak handiagoak izango dira erretiroa aurreratzen den hilabeteak gero eta gehiago izan, eta aldiz, txikiagoak izanago dira erretiroa beranduago hartzen dutenentzat.

Beste aldetik, erretiro aurreratua eskuratzeko beste aldaketa bat prestazioaren kalkuluan dago. Orain, pentsioaren kalkulua aurreratutako hilabeteen arabera egingo da, momentu bakoitzean dagokion legezko adinari dagokionez, hiru hilean behin egin beharrean, orain arte egin den bezala.

3.2.1 Nahitaezko erretiro aurreratua

Nahitaezko erretiroan langileak ez du lan jarduera uzteko borondaterik baina kanpoko arrazoiengatik emango da egoera hori.

Ondorioz, nahitaezko erretiro aurreratua hartu ahal izateko baldintzak ondorengoak izango dira:

- a) Kasu bakoitzean aplikatzekoa den erretiro adin arrunta baino lau urte gutxiago izatea gehienez. Urte bakoitzean legez ezarrita dagoen erretiro adin arrunta finkatzeko Taula 1era joko dugu, non Gizarte Segurantzak 2027ra arte argitaratutako erretiro adinak zehazten diren kotizatutako aldien arabera. Ikus daiteke nola urtez urte erretiro adina gradualki handitzen doan, baita kotizazio denbora ere.

Taula 1. Erretiro adinak eta kotizazioaldiak (2022-2027)

URTEA	Kotizatutako aldiak	Eskatutako adina
2022	37 urte eta 6 hilabete edo gehiago	65 urte
	37 urte eta 6 hilabete baino gutxiago	66 urte eta 2 hilabete
2023	37 urte eta 9 hilabete edo gehiago	65 urte
	37 urte eta 9 hilabete baino gutxiago	66 urte eta 4 hilabete
2024	38 baino gehiago	65 urte
	38 baino gutxiago	66 urte eta 6 hilabete

2025	38 urte eta 3 hilabete edo gehiago	65 urte
	38 urte eta 3 hilabete baino gutxiago	66 urte eta 8 hilabete
2026	38 urte eta 3 hilabete edo gehiago	65 urte
	38 urte eta 3 hilabete baino gutxiago	66 urte eta 10 hilabete
2027tik aurrera	38 urte eta 6 hilabete edo gehiago	65 urte
	38 urte eta 6 hilabete baino gutxiago	67 urte

Iturria: Gizarte Segurantzza

- b) Erretiroa hartu nahi duen pertsona enplegu zentroetan enplegu-eskatzaille gisa izena emanda egon beharko da erretiroa hartu baino 6 hilabete lehenagoko epean gutxienez.
- c) Gutxienez 33 urtez kotizatu behar izan dira eta 33 urtetatik gutxienez 2 urte erretiroa hartu aurretiko 15 urteren barruan egon behar dute.
- d) Lana uztea hurrengo zergati batengatik eman bada:
 - i. Kaleratze Kolektiboa arrazoi ekonomiko, tekniko, antolamenduzko edo ekoizpenekoengatik.
 - ii. Kaleratze objektiboa, mota bereko arrazoiengatik.
 - iii. Kontratua ebazpen judizial baten bidez amaitzen bada, Lege Konkurtsalak aurreikusitako kasuetan.
 - iv. Enpresaburuaren heriotza, erretiroa edo ezintasuna edo kontratatzailearen nortasun juridikoa amaitzea
 - v. Lan-kontratua amaitzea, lan-agintaritzak egiaztatutako ezinbesteko arrazoiren bat dagoenean.
 - vi. Langilearen borondatez kontratua amaitzea, mugikortasun geografiko baten, funtsezko baldintzetan aldaketan edota enpresaburuaren aldetik ez-betetze baten ondorioz. Baita ere arrazoi justifikatuak daudenean, hala nola duintasunari kalte egiten dioten baldintzak aldatzean, soldata ez ordaintzea edo atzerapen jarraituak ematen badira.
 - vii. Genero-indarkeriaren biktima den langilearen borondatez kontratua amaitzea.

Nahitaezko erretiro aurreratuen kasuan, pentsioa murriztu egingo da, langileari erretiratzeko legezko adina betetzeko falta zaion hilabete edo hilabete-zati bakoitzeko, egiaztatutako kotizazio-aldiaren eta aurrerapen-hilabeteen arabera. Koefiziente murriztaileak Taula 2n agertzen dira eta erretiroa aurreratzen den hilabete kopuru bakoitzari dagozkionak izango dira.

Taula 2. Nahitaezko erretiro aurreratua. Koefiziente murriztaileak

	Kotizazio-aldia: 38 urte eta 6 hilabete baino gutxiago	Kotizazio-aldia: 38 urte eta 6 hilabete edo gehiago eta 41 urte eta 6 hilabete baino gutxiago	Kotizazio-aldia: 41 urte eta 6 hilabete edo gehiago eta 44 urte eta 6 hilabete baino gutxiago	Kotizazio-aldia: 44 urte eta 6 hilabete edo gehiago
Erretiroa aurreratzen den hilabeteak	% murrizketa	% murrizketa	% murrizketa	% murrizketa
48	30,00	28,00	26,00	24,00
47	29,38	27,42	25,46	23,50
46	28,75	26,83	24,92	23,00
45	28,13	26,25	24,38	22,50
44	27,50	25,67	23,83	22,00
43	26,88	25,08	23,29	21,50
42	26,25	24,50	22,75	21,00
41	25,63	23,92	22,21	20,50
40	25,00	23,33	21,67	20,00
39	24,38	22,75	21,13	19,50

38	23,75	22,17	20,58	19,00
37	23,13	21,58	20,04	18,50
36	22,50	21,00	19,50	18,00
35	21,88	20,42	18,96	17,50
34	21,25	19,83	18,42	17,00
33	20,63	19,25	17,88	16,50
32	20,00	18,67	17,33	16,00
31	19,38	18,08	16,79	15,50
30	18,75	17,50	16,25	15,00
29	18,13	16,92	15,71	14,50
28	17,50	16,33	15,17	14,00
27	16,88	15,75	14,63	13,50
26	16,25	15,17	14,08	13,00
25	15,63	14,58	13,54	12,50
24	15,00	14,00	13,00	12,00
23	14,38	13,42	12,46	11,50
22	13,75	12,83	11,92	11,00
21	12,57	12,00	11,38	10,00
20	11,00	10,50	10,00	9,20
19	9,78	9,33	8,89	8,40

18	8,80	8,40	8,00	7,60
17	8,00	7,64	7,27	6,91
16	7,33	7,00	6,67	6,33
15	6,77	6,46	6,15	5,85
14	6,29	6,00	5,71	5,43
13	5,87	5,60	5,33	5,07
12	5,50	5,25	5,00	4,75
11	5,18	4,94	4,71	4,47
10	4,89	4,67	4,44	4,22
9	4,63	4,42	4,41	4,00
8	4,40	4,20	4,00	3,80
7	4,19	4,00	3,81	3,62
6	3,75	3,50	3,25	3,00
5	3,13	2,92	2,71	2,50
4	2,50	2,33	2,17	2,00
3	1,88	1,75	1,63	1,50
2	1,25	1,17	1,08	1,00
1	0,63	0,58	0,54	0,50

Iturria: 21/2021 Legea, abenduaren 28koa

Legezko erretiro-adin hori zehazteko, kotizatutzat joko dira gertaera eragilearen³ datatik legezko erretiro-adina bete arte interesdunari geratzen zaizkion urteak. Ildo beretik, ezin dugu ahaztu, behin kotizazio urteak zehaztuta, oinarri arautzaileari ehuneko batzuk aplikatu behar dizkiogula, edozein pentsio kalkulatzeko orduan; izan ere, urte bakoitzean eskatzen den kotizazio aldia betetzen ez den kasuetan, ez da oinarri arautzailearen %100 jasoko. Ehuneko horiek hurrengo taulan (Taula 3) aurkituko ditugu.

Taula 3. Oinarri arautzaileari aplikatu beharreko ehunekoak

Aplikazio Epea	Lehen 15 urtetan		Urte Gehigarriak	
	Urteak	%	Hilabete Gehigarriak	Koefizientea
2020tik 2022ra	15	50	1tetik 106ra Gainerako 146 hilabetetan	0,21 0,19
	15	50	Guztira, 252 hilabete	
2023tik 2026ra	15	50	1tetik 49ra Gainerako 209 hilabetetan	0,21 0,19
	15	50	Guztira, 258 hilabete	
2027tik aurrera	15	50	1tetik 248ra Gainerako 16 hilabetetan	0,19 0,18
	15	50	Guztira, 264 hilabete	

Iturria: Gizarte Segurantzza

³ Gizarte Segurantzaren arabera, pentsioa jasotzen den egoeraren arabera, gertaera eragilea egindakotzat hartuko da:

- Lan jardueraren uzteko egunean, Gizarte Segurantzaz altan dagoenean langilea
- Eskaera aurkezteko egunean, altaren antzeko egoeran, ondorengo salbuespenekin:
 - Derrigortutako eszedentziaren kasuan, antzeko egoera sortu zuen kargu uztearen eguna.
 - Lurralde nazionaletik kanporako lekualdatze kasuan, besteren konturako lanaren uzte eguna
- Eskaera aurkezteko eguna, alta ez den egoeratan.

Horrez gain, gehieneko pentsioa⁴ duten pertsonentzat, gehieneko zenbateko horren gain koefiziente murriztaile bat ezarri beharko dute, %0,5, erretiroa aurreratzen den hiruhileko bakoitzeko. Behin zenbateko hori aterata, pentsioari koefiziente murriztaileak ezarriz, zenbateko hori ezin izango da %0,5 aplikatutako zenbatekoa baino handiagoa izan.

Bukatzeko, pentsio teorikoa⁵, gehieneko pentsioa baino txikiagoa bada, urte horretan pentsiodunak jasotako zenbatekoa pentsio teorikoari koefiziente murriztaileak biderkatuz lortuko da; aldiz, pentsio teorikoa, gehieneko pentsioa baino handiagoa bada, koefizienteak pentsioaren gehieneko zenbatekoari biderkatuz lortuko da erretiroaren zenbatekoa.

3.2.2 Borondatezko erretiro aurreratua

Borondatezko erretiro aurreratuaren kasuan ere lege ezarrita dagoen adinera iritsi aurretik ematen den erretiroa da, baina kasu honetan langilearen inizatibaz bultzatuta.

Modalitate honetan erretiro aurreratua hartzeko baldintzak ondorengoak izango dira:

- a) Kasu bakoitzean aplikatzekoa den legeko adin arrunta baino bi urte gutxiagoko adina izatea gehienez.
- b) Lanean, langabezia-prestazioa jasotzen edo altan edo altaren antzeko egoera batean egotea. Hala ere, erretiro aurreratua borondatez hartzen duen pertsona langabeziako sorospen bat jasotzen ari bada gutxienez duela hiru hilabetetik, ezarriko zaizkion koefizienteak nahitaezko erretiro aurreratuan aplikatzen diren berdinak izango dira.
- c) Gutxienez 35 urtez kotizatu behar izan dute eta 35 urtetatik gutxienez 2 urte erretiroa hartu aurretiko 15 urteren barruan egon behar dute

Baldintzak kontuan izanda, beheko Taula 4 kontuan hartuta, borondatezko erretiro aurreratua hartzea aukeratzen duten pentsiodunen zenbatekoari aplikatu beharreko koefiziente murriztaile berriak biltzen dira, kotizatutako aldiak eta erretiro-pentsioa aurreratzen den hilabete kopurua kontuan hartuz ezarri direnak.

Taula 4. Borondatezko erretiro aurreratua. Koefiziente murriztaileak

	Kotizazio-aldia: 38 urte eta 6 hilabete	Kotizazio-aldia: 38 urte eta 6 hilabete edo gehiago	Kotizazio-aldia: 41 urte eta 6 hilabete edo gehiago	Kotizazio-aldia: 44 urte

⁴ Gehieneko pentsioa, pentsio publiko guztietarako gehieneko muga da. 2022ko ekitaldian hileko, 2.819,57€ (urtean 39.474), 14 ordainsaritan.

⁵ Pentsio teorikoa, oinarri arautzaileari kotizatutako hilabete kopuruari dagokion ehunekoa biderkatuz lortzen da.

	baino gutxiago	eta 41 urte eta 6 hilabete baino gutxiago	eta 44 urte eta 6 hilabete baino gutxiago	eta 6 hilabete edo gehiago
Erretiroa aurreratzen den hilabeteak	% murrizketa	% murrizketa	% murrizketa	% murrizketa
24	21,00	19,00	17,00	13,00
23	17,60	16,50	15,00	12,00
22	14,67	14,00	13,33	11,00
21	12,57	12,00	11,43	10,00
20	11,00	10,50	10,00	9,20
19	8,78	9,33	8,89	8,40
18	8,80	8,40	8,00	7,60
17	8,00	7,64	7,27	6,91
16	7,33	7,00	6,67	6,33
15	6,77	6,46	6,15	5,85
14	6,29	6,00	5,71	5,43
13	5,87	5,60	5,33	5,07
12	5,50	5,25	5,00	4,75
11	5,18	4,94	4,71	4,47
10	4,89	4,67	4,44	4,22
9	4,63	4,42	4,21	4,00

8	4,40	4,20	4,00	3,80
7	4,19	4,00	3,81	3,62
6	4,00	3,82	3,64	3,45
5	3,83	3,65	3,48	3,30
4	3,67	3,50	3,33	3,17
3	3,52	3,36	3,20	3,04
2	3,38	3,23	3,08	2,92
1	3,26	3,11	2,96	2,81

Iturria: 21/2021 Legea, abenduaren 28koa

Pentsioaren oinarri arautzailea pentsioaren gehieneko muga baino handiagoa den kasuetan, ondorengo aldaketak biltzen dira:

- Koefiziente murriztaileak erretiro-pentsioaren gehieneko zenbatekoari aplikatuko zaizkio, ez oinarri arautzaileari, orain arte egin den bezala.
- Gehieneko pentsioa jasotzen dutenen kasuan, koefiziente berrien erregulazio hau pixkanaka aplikatuko da 10 urteko epean 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera. Hala ere, erregulazioa soilik ezarriko da, sistemaren gehieneko pentsioaren bilakaerak koefizienteen gehikuntzaren eragina erabat xurgatzen duen heinean, aitortutako pentsioa ez dadin 2021ean indarrean zauden arauen aplikazioarekin legokiokeena baino txikiagoa izan.
- Aldaketak hauek ez dira kontuan hartuko eta ondorioz aurreko legeria jarraituko dute, gehieneko oinarri arautzailea gainditzen duten pertsonak, baldin eta haien lan-harremana iraungi bada 2022ko urtarrilaren 1a baino lehenago eta 12 hilabete baino gehiago Gizarte Segurantzaren sistemako araubideren batean sartu gabe egon bada.

Bestetik, erretiro aurreratua hartzeagatik pentsioa, pentsio minimoa⁶ baino txikiagoa bada, pertsona horrek ezin izango du erretiroa aurreratu eta ondorioz legezko erretiro adin arruntera arte itxaron beharko du.

Era berean, ez dira kontuan hartuko ere lan erregulazioko txostenetan hartutako erabakien ondorioz edo edozein arlotako hitzarmen kolektiboen, enpresako akordio kolektiboen edo konkurtso-prozeduretan hartutako erabakien ondorioz 2022ko urtarrilaren 1aren ondoren amaitzen diren kontratuetan, kontratuak erregulazio hau indarrean jarri aurretik onartu izan baziren.

Borondatezko erretiro aurreratua kotizazio-aldi luzeekin eta zenbateko txikiekin.

Nahiz eta legez ezarritako adinaren aurretik jubilatzen direnek koefiziente murriztaileak aplikatzeko beharra izan, erreforma honetan erretiro pentsioak hobetzeko osagarri bat arautzen da, 2002ko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra bitartean erretiro aurreratua hartu zuten pentsiodunentzat, eta kotizazio-aldi luzea egiaztatu edo pentsio-zenbateko txikia izan dutenentzat.

Horrela, hurrengo baldintzak betetzen dituztenek, bai nahitaezko erretiro aurreratua eskatzen dutenek, bai borondatezkoa, 2022ko martxoaren 1ean plus bat jasoko dute, eta plus hori 21/2021 Legean aurreikusitako koefiziente murriztaileak aplikatuzetik ateratzen den zenbatekoaren eta hasieran onartutako pentsioaren arteko desberdintasuna izango da, betiere hurrengo baldintzak bete ezker:

- 1) Gutxienez 44 urte eta 6 hilabete kotizatu direla egiaztatzea, edo 40 urte gutxienez, 2022ko urtarrilaren 1ean pentsioaren hileko zenbatekoa 900 eurotik beherakoa bada.
- 2) 2022ko urtarrilaren 1ean indarrean zeuden koefiziente murriztaileak aplikatu izan balira, pentsioen hasierako zenbatekoa handiagoa izatea.
- 3) Nahiz eta baldintza hauek bete, ezin izango dute osagarri hau eskuratu jada 2022an ezarrita dagoen gehieneko pentsioa jasotzen duten erretiratuek.

Zenbateko hori 14 ordainsaritan emango da (gabonetako eta udako aparteko ordainsariak barne) eta Gizarte Segurantzak berak ofizioz egingo du baldintza hauek betetzen dituzten pertsonen eskubide honen aitortzea. Inklusio, Gizarte Segurantzaren eta Migrazio ministerioaren esanetan, 2022an osagarri hau 213.000 pertsonen jaso ahal izango dute (Uppers, 2022).

⁶ 2022an, urteko pentsio minimoa 65 urte baino gutxiago dituenentzat ondorengoa izango da: Ardurapeko ezkontidea duenak urtero 11.688,60€ gutxienez, ezkontidegabe 9.452,80€ eta ardurapen gabeko ezkontidearekin 8.934,80€.

Halaber, urte bat barru, Gobernuak, txosten bat egin beharko du neurri honen aplikazio eta eragina aztertuz.

3.2.3 Jardueraren ondoriozko erretiro aurreratua

Erretiratzeko ohiko adina aurreratu edo murriztu daiteke nekezak, arriskutsuak, toxikoak edo osasunaren kalterako diren eta hilkortasun edo heriotza-tasa handiak dituzten lanbide talde edo jarduera profesionaletan, betiere, eragindako langileek lanean ezarritako gutxieneko jarduera egiaztatzen badute eta eskatzen diren baldintzak betetzen badituzte (Gizarte Segurantzaren arabera).

Gizarte Segurantzaren arabera, hurrengo lanbideak sartuko lirateke modalitate honen barruan: Meatzarien Estatutuan dauden langileak, aireko hegaldietako langileak, treneko langileak, artistak, zezenketako profesionalak, suhiltzaileak, ertzaintzako kidea eta udaltzaingoa.

Ilido beretik, ezin izango dute erretiro hau hartu 52 urte baino gutxiago duten pertsonak eta ezta ere erretiro partziala, erretiro aurreratua edo beste edozein modalitate eskuratzeko.

3.2.4 Erretiro aurreratua desgaitasun bat izanez gero

Desgaitasun-gradu bat duten pertsonen kasuan, erreforma berriak erretiro modalitate hau legez arautuko du jardueraren ondoriozko erretirotik bereiziz eta ezartzen du erretiro-adina aurreratu ahal izango dutela, desgaitasun gradua %65 edo gehiagokoa dutenek eta baita %45etik gorakoa dutenek, egiaztatzen bada ezintasun horrek pertsona horren bizi-itzaropena murriztea dakarrela.

Kasu honetan ere ezin izango dute erretiro hau hartu 52 urte baino gutxiago izanez gero, ezta ere erretiro partziala, erretiro aurreratua edo beste edozein modalitate eskuratu ezker.

Lege hau indarrean sartu eta sei hilabeteko epean, Gobernuak Toledoko Itunean ematen diren akordioak jarraitu eta ebaluatzeaz arduratzen den batzordeari txosten bat bidaliko dio desgaitasuna duten pertsonen gizarte-babesarekin lotuta dauden alderdiei buruz hitz egiten duena, adimen-desgaitasuna duten pertsonen kolektiboari eragiten dion problematikan arreta berezia jarritz.

3.3 AKTIBOKO LANGILEEN IRAUNKORTASUNA SUSTATZEA

Sarreran aipatu bezala Espainiak arazo handi bat du Gizarte Segurantzaren finantzazioarekin eta honek zaildu egin du pentsio sistema publikoaren iraunkortasuna. Horren ondorioz, erreforma honen barruan, erretiro adina atzeratzea sustatu nahi da dauden pizgarriak hobetuz eta horretarako Toledoko Itunaren 12.gomendia jarraituz, zenbait aldaketa egin dira.

3.3.1 Borondatezko Erretiro Atzeratua

Borondatezko erretiro atzeratua, langile batek erretiratzeko legezko adina helduta, bere lan bizitza luzatzea erabakitzen duenean ematen da, honek etorkizunean jasoko duten pentsioan onura batzuk ekarriz.

Erretiro atzeratua aukeratu ahal izateko baldintzak hurrengoak dira: Gutxienez Gizarte Segurantzari 15 urte kotizatu izana, 70 urte bete ez izana eta urte horri dagokion ohiko erretiroaren gutxieneko adina beteta izatea (Taula 1).

2022ko urtarrilaren 1etik aurrera, erretiro modalitate hau aukeratzen duen pertsonak, erretiratzeko momentuan jasoko duen onura ekonomikoa aipatuko diren hiru aukeren artean bat aukeratzeko egingo du. Aukeraketa hori ezin izango da aldatu eta aukeratu ezean, lehenengo aukera aplikatuko da.

Lehenengo aukera legezko adina bete ondoren, kotizatutako urte oso bakoitzeko %4 gehigarria jasotzea da, oinarri arautzaileari aplikatuko zaiona, pentsioaren zenbatekoa handituz betirako. Ehuneko hori erretiratzeko jasoko da, hileko jasotzen duen pentsioari dagokion ehuneko aplikatuta.

Horrez gain, erretiroa atzeratzeagatik jasotzen den hobaria, pentsioari gehituta, ezin izango da urte horretan ezarrita dagoen gehieneko pentsioa baino altuagoa izan. Dena den, hobaria gehitu gabe edo partzialki gehitu den kasuetan, pentsioa gehieneko pentsiora heltzen bada, interesdunak urtero zenbateko bat jasotzeko eskubidea izango du. Zenbateko hori kalkulatzeko, momentu bakoitzean indarrean dagoen gehieneko pentsioari, pentsioaren zenbateko hori kalkulatzeko erabili ez den ehuneko gehigarria aplikatuko zaio, hurbilen dagoen unitatera biribilduta (Instituto BBVA de Pensiones, 2022).

Bigarren aukera ordea, lanean jarraitzea erabaki duen pertsonak behin betiko jubilazioa hartzean ordainketa bat jasoko du eta kasu honetan, jasoko den kantitatea erretiro-adin arruntera iristean kotizatu diren aurreko urteen arabera da, 5.000 eurotik 12.000 eurora bitartekoa. Zenbatekoa kalkulatzeko hurrengo formula erabiliko da:

- 44 urte eta 6 hilabete baino gutxiago kotizatu duenarentzat:

$$\text{Zenbatekoa} = 800 \times \left(\frac{\text{urteko pentsioa}}{500} \right)^{\frac{1}{1,65}}$$

- 44 urte eta 6 hilabete baino gehiago kotizatu duenarentzat, aurreko balioa %10 handituko da:

$$\text{Zenbatekoa} = 880 \times \left(\frac{\text{urteko pentsioa}}{500} \right)^{\frac{1}{1,65}}$$

Hirugarren aukera aurreko bien konbinazio bat izango litzateke, baina oraindik ez da xehetasun handirik eman honen inguruan.

Erretiro atzeratuarekin bukatzeko, kontuan hartu behar da onura ekonomiko hau ez dela aplikagarria izango erretiro aktibo, partzial, malgu eta aurreratuarekin.

3.3.2 Erretiro Aktiboa

Modalitate hau aukeratzen duen pertsonak, erretiratzeko adin arrunta helduta, lan egiten jarraituko du baina pentsioaren ehuneko bat kobratzeko eskubidea izango du.

Erretiro mota hau jaso ahal izateko hurrengo baldintzak bete beharko dira:

- Erretiratzeko legezko adin arrunta beteta izatea eta une horretatik urte bat igaro izana. Lehenengo puntu hau izango da berritasuna erretiro aktiboari dagokionez.
- Pentsioaren %100 jasotzeko eskubidea izateko adina kotizatu duten pertsonak bakarrik jaso ahalko dute erretiro aktiboa.
- Lana, besteren kontura, norberaren kontura, lanaldi osoan edo partzialean egin ahal izango da.
- Modalitate hau hartu ahal izatetik kanpo geratuko dira sektore publikoan lanpostu bat edo goi kargu bat betetzen dutenak.

Baldintzak kontuan izanda, lanarekin bateragarria den pentsioaren zenbatekoa, lanaren bateragarritasuna hasten den unean jasotzen ari den zenbatekoaren %50 izango da, gutxienekoengatiko osagarria kanpoan utziz, pentsiodunak duen lanaldia edozein izanda ere.

Jarduera norberaren kontura egiten bada eta gutxienez besteren konturako langile bat kontratatua duela egiaztatu ezker, %50 izan beharrean, %100 izango da. Nolanahi ere, pentsiodunak ez du eskubiderik izango gutxienekoengatiko osagarria jasotzeko, pentsioa eta lana bateragarriak dituen bitartean.

Pentsioaren balio emateari dagokionez, pentsio hau sistemako gainerako pentsioak bezala errebalorizatuko da, baina langileak pentsioaren %50 jasoz. Azkenik, erretiro aktiboa bukatzen den momentuan, erretiro pentsioaren zenbateko osoa ezarriko da.

3.3.3 Kotizazioetan pizgarriak adineko langileen kasuetan

Adineko langileen kasuan, 2021eko legean ondorengo aldaketak bilduko dira:

- a) Aldi baterako ezintasunaren kasuan kotizatzen jarraitu beharko dute baina 62 urtetik gorako langileengatik enpresek Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko kuotak %75 murriztuko dira.
- b) Jarduera mantentzen duten langileen kasuan, erretirorako adin arrunta betetzen dutenean, enpresak eta langileak gertakizun arruntengatik (aldi baterako ezintasunagatik izan ezik) Gizarte Segurantzaren kotizatzegatik salbuetsita geratuko dira, eta aurreko legeriak eskatzen zuen pentsioaren oinarri arautzaileari %100 aplikatzea ahalbidetzen duen kotizazio-aldia egiaztatzeko baldintza ezabatzen da.
- c) Erretiroa hartzeko adinera iristen diren eta norberaren konturako lanean jarraitzen duten langileek ere ez dute Gizarte Segurantzaren kotizatu beharrik izango, aldi baterako ezintasunagatik eta gertakari profesionalengatik ez bada, eta aurreko legeriak eskatzen zuen pentsioaren oinarri arautzaileari %100 aplikatzea ahalbidetzen duen kotizazio-aldia egiaztatzeko baldintza ezabatuko da.

3.4 ERRETIRO ARRUNTA

Taula 1ean ikus daitekeen bezala, 2022an erretiratu ahal izateko adin arrunta 65 urte dira 37 urte eta 6 hilabete baino gehiago kotizatu dituenarentzat eta aldiz 66 urte eta 2 hilabete 37 urte eta 6 hilabete baino gutxiago kotizatu dituenarentzat.

Baina, adina eta kotizazio denboraz gain, ondorengo baldintzak bete behar dira modalitate honetan erretiratu ahal izateko:

- Gizarte Segurantzaren afiliatuta egotea altan edo altaren pareko egoeran. Posible da altan ez egonda ere erretiroa hartzea, beti ere eskatzen den adina beteta badu eta 15 urte kotizatzeaz gain 15 urte horietatik 2 behintzat erretiroa hartu aurreko 15 urteen barnean egon badira.
- Gutxieneko kotizazio aldi bat izatea, 15 urte. 15 urte horietatik 2 behintzat erretiroa hartu aurreko 15 urteen barnean egon behar dira.

3.4.1 Nahitaezko erretiro arrunta

Nahiz eta erretirorako adin bat ezarrita dagoen legez, aurreko adibideetan ikusi dugun bezala langileek badute lan egiten jarraitzeko eskubidea, baina eskubide hau ez da absolutua. Izan ere, sektore publikoan adibidez, 65 urtean ezarrita dago derrigorrezko erretiroa, nahiz eta salbuespen batzuek 70 urtera luzatu dezaketen aurretik eskatu eta onarpena izan ezker.

Sektore pribatuari dagokionez ere muga batzuk aurkitu ditzakegu, hala nola sektoreko hitzarmen kolektiboen klausuletan ezartzen diren baldintzak adibidez.

Horrela, lege honen arabera hitzarmen kolektiboek ondorengo kasuetan bakarrik ezarri ahal izango dute nahitaezko erretiroa:

1. Langileak 68 urte edo gehiago dituenean. Nolanahi ere, gutxieneko adina 68 urte izan arren, salbuespen bat barneratzen da emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzea helburu bada. Kasu horietan, muga hori erretiroa hartzeko legezko adinera murriztu daiteke, hitzarmen kolektiboak arautzen duen sektoreko jardura ekonomiko jakin batean, Gizarte Segurantzaren afiliatuta dauden besteren konturako emakume langileen okupazio-tasa bertako langileen %20 baino txikiagoa denean.

Gainera, kasu hauetan eskatzen da kontratua iraungitzen den bakoitzean, aldi berean, aipatutako jardueran gutxienez emakume bat kontratatzea, lanaldi osoz eta mugagabean.

2. Pentsio arruntaren %100 jasotzeko baldintzak betetzen dituenean. Oinarri arautzailearen %100 jasotzeko, Taula 1ean, urte bakoitzeko eskatzen den gutxieneko kotizazio aldia beteta izan behar du.
3. Neurria belaunaldi-erreleboari lotuta egon behar da, gutxienez langile berri baten kontratazio mugagabearen eta lanaldi osoko kontratazioaren bitartez.

Bukatzeko, aldaketa hauek 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera negoziatzen diren hitzarmen kolektiboetan sartutako klausulei eragiten die, horrela, data hau baino lehenagoko hitzarmenetan, nahitaezko erretiroaren klausulak dagokion hitzarmenaren hasierako indarraldi itundua eta hiru urtera arte aplikatu ahal izango dira.

3.5 BELAUNALDI ARTEKO EKITATE-MEKANISMOA

Momentura arte, 23/2013 Legearen bitartez ezarri zen “Jasangarritasun-Faktorea” Espainiar pentsioen erreformaren ardatz izan da, nahiz eta ez den aplikatua izan, 2023an sartu behar zelako indarrean. Erretiro pentsioen jasangarritasun-Faktorea, Gizarte Segurantzako sistemaren erretiro-pentsioen zenbatekoa pentsiodunen bizi-itxaropenaren bilakaeraren arabera automatikoki kalkulatzeko tresna da. (23/2013 Legea)

Lege berri honetan ordea, Jasangarritasun-Faktorea indargabetu eta Belaunaldien Arteko Ekitate-Mekanismo batekin ordezkatu da, honen helburua pentsioen iraunkortasuna izanik. Indargabetze horren arrazoiak pentsio sistemak dituen erronkak ez betetzea dira, horien artean, bizi-itxaropenaren hazkundea eta erretiroa hartzen duten belaunaldien eta lan egiteko adinean dauden pertsonen kopuruaren desoreka hain zuzen ere.

Horrela, belaunaldi arteko ekitate mekanismoak bi osagai ezartzen ditu:

- 1) Gizarte Segurantzaren Erreserba Fondoaren Hornidura (2023-2032)

Helburua, “Baby Boomers” deitutako belaunaldiak erretiroa hartzen dutenean emango den pentsioen gastuen desbideratzei aurre egiteko errekursoak izatea da. Horretarako, 2023. urtetik aurrera eta hamar urteko epean (2032ra arte) kotizazio gehigarri bat ezarriko da

Gizarte Segurantzako Erreserba Fondoan. Kotizazioa 0,6 puntuko ehunekoetan izango da, bertatik, 0,5 enpresari eta 0,1 langileari egokituko zaio.

- 2) Fondoa kotizatzaile eta pentsiodunei konpentsatzeko erabili edo neurrien aktibazio kontingentea.

2032.urtetik aurrera finkatuko da bigarren osagai hau. Helburua, hiru urtean behin, Europako Batzordearen *Ageing Report* edo antzeko dokumentuaren azken aurreikuspenak kontuan izanda, egiaztatuko da 2050eko gastuak Ageing Report 2024an (indargabetuta dagoen jasagarritasun faktorearen eragina kenduta) egindako aurreikuspenak gainditzen dituen edo ez.

Aurreikusitako gastuak ez badu Ageing Reportek 2024an emandako erreferentziazko maila hori gainditzen, ez da inongo neurririk ezarriko. Baina proposamen bezala planteatu da Erreserba Fondoa kotizazio sozialak murriztu edo pentsioak hobetzeko erabiltzea.

Ordea, erreferentziazko maila hori gainditzen badu, hurrengo neurriak ezarriko dira:

- 1) Erreserba Fondoko aktiboak erabiliko dira pentsio kontributiboak finantzatzeko. Urtero gehienez BPG %0,2 izanda.
- 2) Gastuaren desbideratzea aipatutako %0,2 gainditzen badu edo Fondoa agortuta badago, gobernuak eta gizarte eragileek Toledoko Itunera ondorengo proposamenak eramango dituzte sarrerak handitzeko: pentsioen gastuaren ehunekoa murriztea BPG terminoetan, kotizazio-tasa handitzea edo diru-sarrerak handitzeko beste bide batzuk erabiltzea.

Neurri hauekin Erreserba Fondoko aktiboekin estalita ez dagoen 2050erako dagoen pentsio-gastuaren aurreikuspenaren desbideratzea konpentsatuko da, muga BPG %0,8ko mugarekin.

4. ADIBIDEAK

Behin erreforman aipatzen diren artikulua nagusiak aztertu ondoren, adibide desberdinen bitartez aurreko puntuetan landutako zenbait kontzeptu praktikara eramango ditugu, pertsona ezberdinei erreforma honek zelan eragin dien ikusteko.

Kalkuluak egiteko erreferentzia-urtea 2022 urtea izango da; hau da, suposatuko dugu adibideetako pertsonak 2022. urtean beraien erretiro adinak eta zenbatekoak kalkulatu nahi izan dituztela, beraz 2022ko jubilazio arauak ezarriko dira.

Hau esanda, lau adibide planteatuko ditugu eta denetan suposatuko dugu ondorengo baldintzak ematen direla:

- Adibideetako pertsonak ez dute seme-alabarik edo harreran hartutako adingaberik. Bestela, “amatasun” gehigarri bat emango litzateke.
- Ez dute genero-arrakala murrizteko osagarririk eskatu.
- Ez dute desgaitasunik aitortuta.
- Ez dute erretiroa aurreratzea ahalbidetzen duen lanik izan.
- Ez dute atzerrian lan egin. Atzerrian lan eginez gero kontuan hartu beharko genituzke kanpoan kotizatutako urteak.
- Oinarri arautzaileak konstanteak izango dira berdinak izango dira.

Baldintza hauek kontuan hartuta jakin behar dugu kalkulatu diren zenbatekoak ez direla errealitatean zehatz mehatz horiek izango; izan ere, ez dakigu zein izango den pertsona hauen lan-etorkizuna (langabezia egongo diren, gehiago kotizatuko duten...). Ondorioz, aukeratutako adibideetako pertsonen adinak erretiro adinetik gertu egongo dira, azkenean, erretiro adinetik gero eta urrunago egon, kalkuluek zentzu gutxiago dute, pertsona horiei oraindik urte asko geratzen zaizkielako lanean eta baliteke etorkizuneko erreforma berrien ondorioz gaur kalkulatuak balio ez izatea.

Pentsioen zenbatekoak kalkulatzeko oinarriko kontzeptua oinarri arautzailea⁷ da eta hurrengo adibideetan erabilitako oinarri arautzaileak kalkulatzeko erabilitako kotizazio oinarriak⁸, Espainiar estatuan adin-tartearen arabera ezarrita dauden batez besteko kotizazio oinarriak erabili dira (Gizarte Segurantzak, 2022). Horrez gain, kotizazio denborak zehazteko ere, Espainian lan bizitzaren batez besteko iraupena kontuan izan dugu, 2020ko datuekin, eta 34,8 urtekoa da (E.B, 2020)

4.1 Adibidea: Erretiro arrunta eta Nahitaezko erretiro aurreratua

Iñaki izena duen gizon batek, EEE baten ondorioz bere lanpostua utzi behar izan du eta ez daki nahitaezko erretiro aurreratua hartu edo lanean jarraitu eta legezko erretiro adin arrunta heldu arte itxaron. Iñakik 2022ko urtarrilean 64 urte ditu, kotizazio denbora 33 urte dira eta bere oinarri arautzailea 1870€ da. Iñakik, bi aukerak aztertu ditu; erretiro arrunta eta nahitaezko erretiro aurreratua.

A. Erretiro arrunta

⁷ Oinarri Arautzailea langileak erretiroa hartu nahi duen unetik aurreko 25 urtetan jasotako ekarpen guztien batez bestekoa da. 2022an oinarri arautzailearen kalkulua horrela kalkulatu da:

$Oinarri\ Arautzailea = \frac{300 \times kotizazio\ oinarria}{350}$; hau da, erretiroa hartu nahi den urtetik, aurreko 300 hilabeteetan izandako ekarpenen batua zati 350 eginez. Erabilitako kotizazio oinarriak ondorengoak izan dira: lehenengo adibidean, 2.182€, bigarrenean 1.342€ eta hirugarrenean 3.289,5 €.

⁸ Kotizazio oinarriak langile batek hilero jasotzeko eskubidea duen ordainsari osoa da, aparteko ordainsariak gabe. Ordainsari hau gauzaz edo eskudirutan jaso daiteke. (Elena Trujillo, 2020).

Erretiro arrunta hartzeko baldintzak, 2022an ondorengoak dira:

- 2022 ekitaldirako eskatzen den adina eta kotizazio aldia betetzea.
- Gizarte Segurantzari afiliatuta egotea altan edo altaren pareko egoeran.
- Gutxieneko kotizazio aldi bat izatea, 15 urte. 15 urte horietatik 2 behintzat erretiroa hartu aurreko 15 urteen barnean egon behar dira.

Iñakik ez du lehenengo baldintza betetzen 64 urte dituelako, beraz, kotizatutako denborarekin ezin izango du erretiro arrunta hartu 2022an. Ordea, lanean jarraitzen badu, 2024an 66 urte eta 6 hilabete betetzean eta 35 urtez kotizatuta, erretiroa eskatu ahalko du. Beraz, behar duen adina bete ondoren, hilero jasoko lukeen pentsioa kalkulatu ahal izango dugu.

Lehendabizi, kotizatutako urteen arabera oinarri arautzaileari aplikatu beharko zaizkion ehunekoak kalkulatu ditugu, Taula 3 jarraituz, ehunekoak ondorengoak dira:

Lehen 15 urteetan %50 aplikatuko zaio. Geratzen dira:

$$35\text{urte} - 15\text{ urte} = 20\text{ urte} \text{ (240 hilabete)}$$

Kotizatutako urte gehigarri bakoitzagatik hurrengo ezarriko da

$$1\text{etik } 49\text{ra } \%0,21 \text{ aplikatuko zaio} \rightarrow 49 \times \%0,21 = \%10,29$$

$$\text{Geratzen dira } 240 - 49 = 191 \text{ hilabete}$$

$$\text{Gainerako } 131 \text{ hilabeteak} \rightarrow 191 \times \%0,19 = \%36,29$$

$$\text{Guztira} = \%50 + \%10,29 + \%36,29 = \%96,58$$

Ehuneko hau, oinarri arautzaileari aplikatuta, Iñakik hilabetero jasoko duena kalkulatu dugu, legezko erretiro arrunta bete arte itxaroten badu:

$$\begin{aligned} \text{Pentsioaren zenbatekoa} &= \text{Oinarri arautzailea} \times \text{aplikatutako ehunekoa} = 1.870 \times \%96,58 \\ &= 1.806,046 \cong 1.806\text{€/hilero} \end{aligned}$$

Beraz, 64€ murriztuko zaio pentsioaren zenbatekoa 2024an 66 urte eta 6 hilabeterekin erretiratuta.

B. Nahitaezko Erretiro Aurreratua

Teorian aipatu bezala, nahitaezko jubilazio aurreratuaren kasuan, 4 urtetan aurreratu daiteke erretiroa hartzeko unea hurrengo baldintzak bete ezker:

- Kasu bakoitzean aplikatzekoa den erretiro adin arrunta baino lau urte gutxiago izatea gehienez.

- Erretiroa hartu nahi duen pertsona enplegu zentroetan enplegu-eskatzailerik gisa izena emanda egon beharko da erretiroa hartu baino 6 hilabete lehenagoko epean gutxienez.
- Gutxienez 33 urtez kotizatu behar izan dira eta 33 urtetatik gutxienez 2 urte erretiroa hartu aurretiko 15 urteren barruan egon behar dute
- Lana uztea EEE baten ondorioz izan bada.

Kasu honetan, Iñakik, baldintza guztiak betetzen dituela kontuan hartuta, posible du nahitaezko erretiro aurreratua hartzea.

Erretiroa aurreratzean, pentsioa koefiziente murriztaileekin txikituko zaigu, eta erretiro adina kalkulatzeko, kotizatutzat joko dira jubilazio aurreratua hartu nahi den datatik, urte horretan legezko adinera arte falta diren urteak. Hau da, kasu honetan 64 urtetik 66 urte eta 6 hilabetera 30 hilabete igaro dira, eta hau kotizazio aldiari gehituko zaio; beraz, koefizienteak ezartzerako orduan, Iñakik ez ditu izango 33 urte kotizatuta, baizik eta 35 urte.

Dena den, lehendabizi oinarri arautzailearen gaineko ehunekoak ezarri behar dira eta hemen 33 urte hartzen dira kontuan:

Lehen 15 urteetan %50 aplikatuko zaio. Geratzen dira:

$$33\text{urte} - 15\text{ urte} = 18\text{ urte} \quad (216\text{ hilabete})$$

Kotizatutako urte gehigarri bakoitzagatik hurrengo ezaugarriko da

$$1\text{etik } 106\text{ra } \%0,21\text{ aplikatuko zaio} \rightarrow 106 \times \%0,21 = \%22,26$$

$$\text{Geratzen dira } 216 - 106 = 110\text{hilabete}$$

$$\text{Gainerako } 131\text{ hilabeteak} \rightarrow 110 \times \%0,19 = \%20,9$$

$$\text{Guztira} = \%50 + \%22,26 + \%20,9 = \%93,19$$

Ehuneko hau, oinarri arautzaileari aplikatuko zaio, baina baita ere erretiroa aurreratzeagatik ezartzen zaion koefiziente murriztailea. Kasu honetan, Iñakik 30 hilabetetan aurreratzen du erretiroa; beraz, aplikatu beharreko koefiziente murriztailea %18,75 izango da (Taula 3), eta guztira geratuko zaion zenbatekoa:

$$\text{Pentsioaren murrizketa} = 1.870 \times \%93,19 \times \%18,75 = 326,74 \cong 327\text{€/hilero}$$

327€ murriztuko zaio hilabetero pentsioa. Beraz, erretiroa 2 urte eta 2 hilabetetan aurreratzen badu, hilero 1.806€ jaso beharrean 1479€ jasoko ditu.

4.2 Adibidea: Erretiro arrunta eta Nahitaezko erretiro aurreratua

Maite izeneko emakume bat bati lan-kontratua amaitu zaio eta nahitaezko erretiro aurreratua hartzeko aukera du baina erretiro arruntera arte itxaronda zenbat jasoko lukeen ere jakin nahi du. 2022an 63 urte ditu eta 39 urtez kotizatu du. Bere oinarri arautzailea 1.300€ da.

A. Erretiro arrunta

Kasu honetan ere, Maitek erretiro arrunta hartzeko baldintzak betetzen ditu (Gizarte Segurantzaren afiliatua egotea eta 15 urte baino gehiago kotizatu izana, eta horietatik bi urte azken 15 urteen barnean egotea), legezko adin arruntaren baldintza izan ezik, ez baititu 65 urte oraindik. Lanean jarraitu ezker, 2 urte barru, 41 urtez kotizatuta, erretiroa hartu dezake, oinarri arautzailearen %100 jasoz, hau da, 1.300€ hilero.

B. Nahitaezko Erretiro Aurreratua

Maitek ere erretiro modalitate hau hartzeko baldintzak betetzen ditu; erretiro adin arrunta baino 4 urte gutxiago izatea, enplegu-eskatzaile gisa egotea, 33 urte baino gehiago kotizatu ditu eta lan-kontratua amaitu zaio lan-agintaritzak egiaztatutako ezinbesteko arrazoiren batengatik.

Nahitaezko erretiro aurreratua 24 hilabetetan aurreratu du eta kotizatutako denbora 39 urte izan dira, ondorioz oinarri arautzailearen %100 jasoko du hemen ere, 2022ko ekitaldian eskatzen den gutxieneko kotizazioa baino gehiago kotizatu duelako. Ordea, erretiro adina kalkulatzeko, kotizatutako joko dira jubilazio aurreratua hartu nahi den datatik, urte horretan legezko adinera arte falta diren urteak. Beraz, koefiziente murriztaileak ezartzeko 41 urte izango dira kontuan, ez 39, eta erabiliko den koefizientea %14 izango da (Taula 3).

$$\text{Pentsioaren murrizketa} = 1.300 \times \%14 = 182\text{€/hilero}$$

182€-tan murriztuko zaio hilabetero pentsioa, erretiroa 2 urtetan aurreratzen badu. Beraz, 1.300€ jaso beharrean, 1.118€ jasoko ditu.

4.3 Adibidea: Erretiro arrunta eta Borondatezko erretiro aurreratua

2022ko ekitaldian Elsa izeneko emakume batek denbora asko igarotzen du etxetik kanpo lanean eta ondorioz ondorengoak jakin nahi ditu: borondatezko jubilazio aurreratua jaso dezakeen, jaso ahal izatekotan zenbatekoa zenbat den eta bukatzeko erretiro arruntera arte itxaronda zenbat jasoko lukeen.

Elsak, 2022an 63 urte ditu, bere lan bizitzan 38 urtez kotizatu du eta oinarri arautzailea 1.150€ da. Hemen ere bi aukera ditugu: erretiroa aurreratzea edo ekitaldi honetako legezko adinera arte itxarotea.

1. Erretiro arrunta

2022an, erretiratzeko adin arrunta 38 urtez kotizatu duenarentzat 65 urte dira, beraz Elsari bi urte falta zaizkio legez ezarrita dagoen erretiro arrunta hartzeko, baina, gainerako baldintzak betetzen dituenez (Gizarte Segurantzaren afiliatua egotea eta 15 urte baino gehiago kotizatu izana, eta horietatik bi urte azken 15 urteen barnean egotea), bi urte igarota ondorengoa jasoko du hilero:

$$\text{Zenbatekoa} = \text{oinarri arautzailea} \times \text{aplikatutako ehunekoa} = 1.150\text{€} \times \%100 = 1.150\text{€}$$

Kasu honetan, aplikatutako ehunekoa %100 da, 2024an 65 urterekin erretiroa hartzeko kotizatutako minimoa (38 urte eta 3 hilabete) baino gehiago kotizatu duelako, beraz ez da zenbatekoa murriztuko eta 1.150€ jasoko ditu hilero.

2. Borondatezko erretiro aurreratua

Lehenengo eta behin borondatezko erretiro aurreratua jasotzeko baldintzak betetzen dituen edo ez egiaztatuko dugu:

- Kasu bakoitzean aplikatzekoa den legezko adin arrunta baino bi urte gutxiagoko adina izatea gehienez.
- Lanean egotea, langabezia-prestazioa jasotzen egotea edo altan edo altaren antzeko egoera batean egotea.
- Gutxienez 35 urtez kotizatu izana eta 35 urtetatik gutxienez 2 urte erretiroa hartu aurretiko 15 urteren barruan egon behar dute.

Elsak baldintza hauek betetzen dituela kontuan hartuta, pentsioaren zenbatekoari ezarriko zaion koefiziente murriztailea kalkulatzeko, hemen ere kotizatutzat joko dira jubilazio aurreratua hartu nahi den datatik, urte horretan legezko adinera arte falta diren urteak. Kasu honetan erretiratzeko adin arruntera arte urtebete geratzen zaizkio, beraz 40 urtez kotizatu duela kontuan hartuko da koefiziente murriztaileen kalkuluan. Oinarri arautzaileari aplikatutako ehunekoa kasu honetan ere %100 izango da eta koefiziente murriztailea %19 izango da (Taula 4). Zenbateko osoaren gain ezarriko den murrizketa, ondorengoa izango da:

$$\begin{aligned} \text{Pentsioaren murrizketa} &= \text{oinarri arautzailea} \times \text{koefiziente murriztaileak} \\ &= 1.150\text{€} \times \%19 = 218,5\text{€} \cong 219 \text{€}/\text{hilero} \end{aligned}$$

219€ murriztuko zaio hilero pentsioa, jasoko duen zenbatekoa guztira 931€ izanik, erretiroa 63 urterekin hartzen badu.

4.4 Adibidea: Erretiro arrunta eta Borondatezko erretiro aurreratua

Katalin izena duen emakume batek 2 hilabete barru 66 urte beteko ditu. 2022ko urtarrilean gaudela suposatuz, momentura arte 35 urte eta 3 hilabetez kotizatu du. Lehenago erretiratzea

posible duen jakin nahi du, edo bestela zenbat itxaron beharko duen erretiro arrunterako. Bere oinarri arautzailea 2.500€ da.

1. Erretiro arrunta

Katalinek erretiroa kotizatu duenarekin 66 urte eta 2 hilabete igarota jaso ahalko du, hau da, 4 hilabete barru. Adin hori beteta, ez dituenek 37 urte eta 6 hilabete kotizatu, oinarri arautzailearen gainean aplikatu beharreko ehunekoak ondorengoak izango dira: (Taula 3)

Lehen 15 urtetan %50.

Geratzen dira:

$$35 \text{ urte eta } 3 \text{ hilabete} - 15 \text{ urte} = 20 \text{ urte eta } 3 \text{ hilabete (243 hilabete)}$$

Kotizatutako urte gehigarri bakoitzagatik hurrengo ezarriko da:

$$1 \text{etik } 106 \text{ra } \%0,21 \text{ aplikatuko zaio} \rightarrow 106 \times \%0,21 = \%22,26$$

$$\text{Geratzen dira } 243 - 106 = 134 \text{ hilabete}$$

$$\text{Gainerako } 134 \text{ hilabeteak} \rightarrow 134 \times \%0,19 = \%25,46$$

$$\text{Guztira} = \%50 + \%22,26 + \%25,46 = \%97,72$$

$$\begin{aligned} \text{Zenbatekoa} &= \text{oinarri arautzailea} \times \text{aplikatutako ehunekoa} = 2.500\text{€} \times \%97,72 \\ &= 2.443\text{€} / \text{hilero} \end{aligned}$$

2022an 66 urte eta 2 hilabete betetzen dituenek erretiroa hartu ahal izango du eta 2.443€ jasoko ditu hilean.

2. Borondatezko erretiro aurreratua

Lehenengo eta behin kasu honetan ere erretiro modalitate hau jasotzeko baldintzak betetzen dituen edo ez egiaztatuko dugu:

- Kasu bakoitzean aplikatzekoa den legezko adin arrunta baino bi urte gutxiagoko adina izatea gehienez.
- Lanean egotea, langabezia-prestazioa jasotzen egotea edo altan edo altaren antzeko egoera batean egotea.
- Gutxienez 35 urtez kotizatu izana eta 35 urtetatik gutxienez 2 urte erretiroa hartu aurretiko 15 urteren barruan egon behar dute.

Katalinek baldintza hauek betetzen dituela kontuan hartuta, erretiroa 65 urte eta 10 hilabeterekin erretiratuko da, eta pentsioaren zenbatekoari ezarriko zaion koefiziente murriztailea kalkulatzeko kontuan hartu dira jubilazio aurreratua hartu nahi den datatik, urte horretan legezko adinera arte falta diren urteak. Kasu honetan erretiro arruntera arte 4 hilabete

geratzen zaizkio, beraz kotizazioak urteka zenbatzen direnez, 35 urte kotizatu ditu. Oinarri arautzaileari aplikatuko zaion koefizientea %3,67 izango da (Taula 4). Hemen ere kontuan hartu behar dugu oinarri arautzailearen %97,72 bakarrik jasoko dugula, 35 urte kotizatzeagatik.

$$\begin{aligned} \text{Pentsioaren murrizketa} &= \text{oinarri arautzailea} \times \text{koefiziente murriztaileak} \\ &= 2.443\text{€} \times \%3,67 = 89,66\text{€} \cong 90 \text{€/hilero} \end{aligned}$$

Pentsioa hilero 90 € murriztuko zaio, guztira 2.353€ izanik.

Lau adibideak kontuan hartuz, hauen arteko konparaketak egiteko, kasu bakoitzari dagokion ordezkapen tasa publikoa kalkulatu dugu. Tasa honekin kalkulatu da, erretiroa hartzeak suposatzen duen erosahalmenaren galera. Hau da, erretiroa hartzean pertsona batek jasoko duen zenbatekoa da, lanean zegoenean jasotzen zuen azken soldatarekin alderatua, eta hurrengo formularen bitartez kalkulatu da (MAPRE):

$$\text{Ordezkapen tasa} = \frac{\text{Pentsioaren Zenbatekoa}}{\text{Azkenengo soldata}}$$

Taula 5ean, adibide bakoitzetik ateratako ordezkapen tasak aurkituko ditugu:

Taula 5. Ordezkapen Tasak

4.1 Adibidea	Erretiro Arrunta		
	Pentsioa	Azken Soldata ⁹	Ordezkapen-tasa
	1.806 €	2.050 €	88,10%
	Nahiaezko erretiro aurreratua		
	Pentsioa	Azken Soldata	Ordezkapen-tasa
	1.479 €	2.050 €	72,15%
4.2 Adibidea	Erretiro Arrunta		
	Pentsioa	Azken Soldata	Ordezkapen-tasa
	1.300 €	1.470 €	88,44%
	Nahiaezko erretiro aurreratua		
	Pentsioa	Azken Soldata	Ordezkapen-tasa
	1.118 €	1.470 €	76,05%
4.3 Adibidea	Erretiro Arrunta		
	Pentsioa	Azken Soldata	Ordezkapen-tasa

⁹ Azken soldatak ateratzeko, adibide bakoitzean jarritako oinarri arautzailea kalkulatzeko kotizazio oinarriak erabili ditugu. Kotizazio oinarriak soldata gordina erakusten dute, beraz kantitate hori baino txikiagoa den zenbakia erabili da azken soldata kalkulatzeko.

	1.150 €	1.240 €	92,74%
	Borondatezko erretiro aurreratua		
	Pentsioa	Azken Soldata	Ordezkapen-tasa
	931 €	1.240 €	75,08%
4.4 Adibidea	Erretiro Arrunta		
	Pentsioa	Azken Soldata	Ordezkapen-tasa
	2.443 €	2.900 €	84,24%
	Borondatezko erretiro aurreratua		
	Pentsioa	Azken Soldata	Ordezkapen-tasa
	2.353 €	2.900 €	81,14%

Iturria: Norberak egina

4.1 adibidea hartu ezkerok, ikus daiteke zelan lñakik, bere erretiroa 30 hilabetetan aurreratzen badu nahitaezko erretiro baten ondorioz, bere erosahalmena %88,10 izatetik %72,15 izatera jaitsiko den; izan ere, erretiroa aurreratzeak pentsioaren murrizketa bat dakar, kasu honetan aplikatutako murrizketa %18,75 izan delako. 4.2 adibidean ere, erretiro arrunta eta nahitaezkoa alderatu ditugu; baina, kasu honetan, erosahalmenaren murrizketa txikiagoa da, erretiroa 24 hilabete izan direlako. Beraz, nahitaezko erretiro aurreratuaren kasuan ikus dezakegu zenbat eta lehenago erretiratu, ordezkapen tasan emango den murrizketa handiagoa izango da.

Borondatezko erretiro aurreratua aukeratzen duten adibideetan ere egoera berdina ematen da. 4.3 adibidean, 24 hilabetez aurreratzen da erretiroa, eta 4.4 adibidean ordea 4 hilabetez soilik. Goiko taulan (Taula 5) ikus daiteke nola 4.4 adibidean, ordezpen-tasa ez den ia aldatzen, erretiroa hilabete gutxi aurreratzen delako; aldiz, 4.3 adibidean erosahalmena nabarmenki murrizten da.

Nahitaezko erretiro aurreratuaren eta Borondatezkoaren artean ere posible da konparaketa bat egitea. Adibidez, 4.2 eta 4.3 adibideetan, bai Maitek bai Elsak erretiroa 24 hilabetez aurreratu dute eta kotizazio aldi ia berdina dute. Baina adibideetara jo ezkerok, ikusi daiteke, Maiteri, nahitaezko erretiro aurreratua hartzean ezarri zaion koefiziente murriztailea %14 izan dela; aldiz, Elsari, borondatezko erretiro aurreratua hartzeagatik %19 aplikatu zaio. Beraz, argi ikusten da, borondatezko erretiro aurreratua gehiago zigortzen dela, aplikatutako koefizienteak handiagoak baitira, nahiz eta aurreratutako hilabete kopurua berdina izan.

4.5 Adibidea: Borondatezko erretiro atzeratua

Laugarren adibidean, Gregorio izeneko gizon bat dugu. Gregoriok 2022ko urtarrilaren 1ean 65 urte bete ditu eta 38 urtetan kotizatu du, baina lanean jarraitzea erabaki du, 4 urte

gehiagotan. Hala ere, jakin nahi du, zein aukera (lehenengoa edo bigarrena) datorkion hobeto erretiroa atzeratzeagatik jasotzen den onura jasotzeko.

Suposatuko dugu bere oinarri arautzailea 2.000€ dela, beraz oinarri arautzailearen %100 jasoko du, 2022rako eskatzen den kotizazio urte minimoa betetzen duelako.

Borondatezko erretiro atzeratua hartzeko baldintzak betetzen dituela suposatuz: Gutxienez Gizarte Segurantzian 15 urte kotizatu izana, ez izatea 70 urte beteta eta urte horri dagokion ohiko erretiroaren gutxienerako adina beteta izatea (2022.urtean 65 urte gutxienez), bi aukerak kalkulatu ditugu jarraian.

1. Aukera

Lehenengo aukera hartu ezker, kotizatutako urte gehigarri bakoitzeko %4 aplikatuko da eta beste 4 urtez lanean jarraitzea espero duenez, 69 urte betetzean behin betikoz jubilatzea erabakitzen badu, hilero %16 handituko zaio zenbatekoa eta jasoko lukeen zenbatekoa 2.320€ izango zen.

$$\text{Pentsio atzeratuaren zenbatekoa} = \text{oinarri arautzailea} \times (1 + (\%4 \times 4)) =$$

$$2.000\text{€} \times (1 + \%16) = 2.320 \text{ €/hilero}$$

Beraz, aukera hau hartu ezker, Gregoriorik lau urte barru jubilatzea erabakitzen badu, 2.000€ jaso beharrean hilero, 2.320€ jasoko ditu geratzen zaion bizitza osoan zehar.

2. Aukera

Gregoriorien kasuan 44 urte eta 6 hilabete baino gutxiago kotizatu dituenek, hurrengo formula erabiliko dugu bere zenbatekoa kalkulatzeko:

$$\text{Zenbatekoa} = 800 \times \left(\frac{\text{urteko pentsioa}}{500} \right)^{\frac{1}{1,65}}$$

Urte hasierako pentsioaren lekuan urte oso batean jasoko dituen pentsioen balioa jarriko dugu. Kasu honetan pentsioaren hilabeteko zenbatekoa 2.000€ direnez, guztira urtean 24.000€ izango ditu, eta balio hau formulari ordezkatuz:

$$\text{Zenbatekoa} = 800 \times \left(\frac{24000}{500} \right)^{\frac{1}{1,65}} = 8356,49\text{€/urtero}$$

Beraz, 2.aukeraren bitartez, erretiroa atzeratutako urte bakoitzeko 8.356,49€ dagozkio Gregoriori, eta, guztira lau urtez atzeratu duenez, 33.426€ jasoko ditu guztira erretiratzen denean. Dena den, aukera hau hartzen badu, kontuan izan behar du lau urte igarotzen direnean berriro ere 2.000€ jasoko dituela, bere oinarri arautzailea ez delako aldatuko.

Ondorioz, bi aukerak kontuan izanda, zein datorkio hobeto Gregoriori erretiroa 69 urterekin hartuko badu? Zaila da erantzun bat ematea, biziko dituen urteen arabera bata edo bestea etor dakiokelako hobeto. Beraz, hiru egoera desberdinetan hobeto etorriko zaiona kalkulatu dezakegu, hurrengo taulan laburbilduta:

Taula 6. Borondatezko erretiro atzeratua I

	Heriotza -urtea	1.aukera (%4)		2.aukera (Ordainketa bakarra)			
		Hilean	Guztira	Ordainketa gehigarria	Hilean	Guztira (erretirotik, hil arte)	Guztira (Ordainketa gehigarria kontuan izanda)
Egoera 1	71	2.320 €	53.997,08 €	33.426 €	2.000 €	46.549,20 €	79.975,20 €
Egoera 2	79	2.320 €	240.677,24 €	33.426 €	2.000 €	207.480,38 €	240.906,38 €
Egoera3	85	2.320 €	354.366,49 €	33.426 €	2.000 €	305.488,35 €	338.914,35 €

Iturria: Norberak egina

Lehenengo egoeran erretiroa hartzen dituenetik bi urte bakarrik biziko balitu jasoko lukeen zenbatekoa kalkulatu dugu.

1. Aukera

Lehenengo aukeran, kalkulatu dugun bezala, hileroko 2.320€ko errenta konstantea jasoko du bi urtetan zehar. Urteroko interes tasa %3¹⁰ dela suposatuz, 69 urte betetzean etorkizunean jasoko dituen errenten balio eguneratua atera dezakegu, zenbateko horiek eguneratuz.

Lehenengo pausua, urteko interes tasarekin hileroko interes tasa ateratzea da hurrengo formula erabiliz:

$$(1 + i) = (1 + i_{12})^{12}$$

$$(1 + 0,03) = (1 + i_{12})^{12}; i_{12} = 2,47 \times 10^{-3}$$

Behin hileroko interes tasa izanda, 69 urte betetzean, kapitalen balio eguneratua aterako dugu, hurrengo formula erabiliz

$$C_{69} = c \times \frac{(1 - (1 + i_{12})^{-n})}{i_{12}} = 2.320 \times \frac{(1 - (1 + (2,47 \times 10^{-3}))^{-24})}{2,47 \times 10^{-3}} = 53.997,08€$$

Non:

¹⁰ Interes tasa zehazteko, 2022rako Estatuko Aurrekontu Orokorren legea erabili da eta bertan diruaren legeko interes-tasa 2022ko ekitaldirako %3 ezarrita dago.

n: erretiroa hartzen duenetik, hau da 69 urte, heriotza-urtera arte igarotako hilabete kopurua.

Hau da, Gregorio 71 urterekin hiltzen bada, 69 urte beteta erretiratzean, hurrengo bi urtetan jasoko dituen errenten balio eguneratua guztira 53.997,08€ izango dira lehenengo aukera aukeratu ezkeru.

2. Aukera

Bigarren aukera hartuz gero, 69 urterekin erretiratzean guztira 33.426€ jasoko ditu, ordainketa bakar batea, eta ondoren 71 urte bete arte geratzen zaizkion 2 urtetan 2.000€ jasoko ditu hilero. Urteroko interes tasa %3 izango dela suposatuz, hemen ere, 69 urte betetzean, hurrengo bi urtetan zehar hilero jasoko dituen errenten balio eguneratua aterako dugu, 1 aukeran egindako pausu berdinekin.

Hileroko interes tasa berriro ere $i_{12} = 2,47 \times 10^{-3}$ izango da.

Interes tasa horrekin eta hilero 2.000€ko errentak jasotzen baditu, hil arte jasotakoa ondorengoa izango da:

$$C_{69} = c \times \frac{(1 - (1 + i_{12})^{-n})}{i_{12}} = 2.000 \times \frac{(1 - (1 + (2,47 \times 10^{-3}))^{-24})}{2,47 \times 10^{-3}} = 46.549,20€$$

Baina, zenbateko horri, 69 urte betetzean jasotako ordainsaria gehitu behar zaio, beraz guztira benetan jasoko duena:

$$33.426€ + 46.549,20€ = 79.975,2 €$$

Beraz, lehenengo egoera honetan, argi dago Gregorio 69 urterekin jubilatzen bada eta beste bi urte bakarrik biziko baditu, hobeto datorkiola 2. Aukera hartzea, gehiago jasoko duelako.

Hurrengo bi egoeretan kalkulu berdinak egingo dira heriotza urteak aldatuz, gero eta beranduago jarriz beranduago jarriz. Beraz, Taula 6 erreparatuz, ikus dezakegu, 2. Egoeran, heriotza-urtea 79 denean ere, 2. Aukera hobea dela, baina 3. Egoeran, 85 urterekin hil ezkeru, jada 1. Aukera aukeratuko duela. Ondorioz, hurrengo taulan (Taula 7), aukera batetik bestera aldaketa zein urtetan egiten duen kalkulatu dugu; hau da, noiz aldatzen duen 2. Aukera 1. Aukerarengatik.

Taula 7. Borondatezko erretiro atzeratua II

Heriotza-urtea	1.aukera (%4)		2.aukera (Ordainketa bakarra)			
	Hilean	Guztira	ordainketa gehigarria	Hilean	Guztira (erretirotik, hil arte)	Guztira (Ordainketa gehigarria kontuan izanda)
79	2.320 €	240.677,24 €	33.426 €	2.000 €	207.480,38 €	240.906,38 €
80	2.320 €	261.054,92 €	33.426 €	2.000 €	225.047,35 €	258.473,35 €
81	2.320 €	280.838,20 €	33.426 €	2.000 €	242.101,89 €	275.527,89 €
82	2.320 €	300.044,40 €	33.426 €	2.000 €	258.658,97 €	292.084,97 €
83	2.320 €	318.690,37 €	33.426 €	2.000 €	274.733,08 €	308.159,08 €
84	2.320 €	336.792,45 €	33.426 €	2.000 €	290.338,32 €	323.764,32 €
85	2.320 €	354.366,49 €	33.426 €	2.000 €	305.488,35 €	338.914,35 €

Iturria: Norberak egina

Taula 6 erreparatuz, ikusi dezakegu Gregoriok 80 urterekin hiltzea espero badu, hobeto datorkio 1. Aukera aukeratzea, balio eguneratua 261.054,92€ delako, eta 2. Aukeran aldiz, 258.473,35€.

Adibide hau ikusita, ondorioztatu dezakegu, zenbat eta urte gehiago bizi erretiro atzeratua hartu ondoren, lehenengo aukera bigarrena baino hobea izango dela. Ordea, erretiroa hartu eta urte gutxitara hil ezker, lehenengo aukera izango da hobea. Hala ere, inoiz ez dakigunez noiz hilko garen, ez da posible zehatz mehatz jakitea zein aukera datorkigun hobeto, baina estimazio bat egiteko balioko digu behintzat.

5. ONDORIOAK

Ukaezina da, Espainiar pentsio sistema publikoa azken boladan, eztabaidaren mende egon dela eta gobernura heldu diren alderdi politikoek saiakerak egin dituztela, legeetan aldaketak eginez, epe ertain eta luzean pentsioen biziraupena ziurtatzeko.

Lan honen helburua, 2022ko ekitaldian, pentsio sistema publikoaren inguruan indarrean sartu den erreformaren azterketa bat egitea izan da. Horretarako, legeko zenbait artikulua aztertu dira, konkretuki, pentsioen errealizazioa, erretiro modalitate ezberdinak eta belaunaldi arteko ekitate mekanismoa.

Legea hobeto ulertzeko, bertako puntu garrantzitsuenak (erretiro aurreratua eta atzeratua), teorikoki azaltzeaz gain, egoera erreal batean eman daitezkeen kasu praktikoekin lagundu dira. Zehazki, zenbait pertsonen jasoko lituzketen pentsioak kalkulatu dira, adinaren, oinarri arautzailearen eta kotizatutako aldiaren arabera; baina baita ere, erretiro motaren arabera.

Adibide praktiko horien bidez, ikusten da, legeko aldaketek erretiroaren atzerapena sustatzeko ildoari jarraitzen diotela; alde batetik, erretiro aurreratuak zigortuz, 4.1,4.2,4.3, 4.4

adibideetan ikusi dugun bezala; eta, bestetik, erretiroa, adin arruntetik aurrera atzeratzen duten pentsiodunak sarituz, 4.5 adibidean bezala.

Lan honetan, pentsioen erreforman onartutako legen neurriak aztertu dira; beraz, urtea amaitu aurretik beste zenbait neurri daude onartzeke. Horien artean garrantzitsuenak ondorengoak dira (Olías, 2022):

- Gehieneko kotizazio-oinarrien igoera zehaztea sistemaren ekarpenak handitzeko asmotan. Oinarri hauetan igoera, gehieneko pentsioen igoerarekin batera etorriko litzateke.
- Autonomoen kotizazio-sistema berria zein izango den zehaztea. Neurri honekin bilatu nahi dena da norberaren konturako langileek beraien diru-sarrerara errealengatik kotizatzea, ez aukeratzen dutenagatik egitea. Egun, autonomoen %85 ahalik eta gutxienekoagatik kotizatzen dute, etorkizunean beraien pentsioei kalte eginez. Gai honen inguruan akordio bat lortzeko dauden zailtasunak ikusita, gobernuak neurriak 2025era arte ezartzea erabaki du.
- Pentsioen zenbaketa aldien luzapena ezartzea. Momentura arte 2022an pentsioaren oinarri arautzailea kalkulatzeko zenbatzeko aldia erretiroa hartu aurreko azken 25 urteak izan dira (300 hilabete). Gobernuak zenbateko hori azken 35 urteetara luzatzea nahi du, baina neurri horrek zenbait langileen pentsioetan ekarriko dituen ondorio kaltegarriak ikusita, proposamena da 35 urtetatik 25, langileari komeni zaionaren arabera aukeratzea.

Beraz, interesgarria izango litzateke, erreforma honek datozen urteetan izango duen eragina baloratzeko, neurri guztiak onartu ondoren, lan batean horien azterketa bat egitea.

6. BIBLIOGRAFIA

Legeria

21/2021 Legea, abenduaren 28koa, pentsioen erosahalden eta pentsioen sistema publikoaren iraunkortasun finantzario eta soziala indartzeko beste neurri batzuk. (BOE, 312, 2021eko abenduaren 29a, 30 or.) <https://www.boe.es/eli/es/l/2021/12/28/21>

22/2021 Legea, abenduaren 28koa, 2022rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa. (BOE, 312, 2021eko abenduaren 29a, 715 or.) <https://www.boe.es/eli/es/l/2021/12/28/22>

23/2013 Legea, abenduaren 23koa, Gizarte Segurantzaren Pentsio Sistemaren Jasangarritasun Faktorea eta Errebalorizazio Indizea arautzen dituenak. (BOE, 309, 2013ko abenduaren 26^a, 8 or.). https://boe.es/boe_euskera/dias/2013/12/26/pdfs/BOE-A-2013-13617-E.pdf

Toledoko Itunaren ebaluazio eta erreforma txostena (BOCG, 175, 2020ko azaroaren 10^a, 113 or.) <https://documentacion.eu/informes/informe-comision-pacto-toledo-2020.pdf>

Interneteko Baliabideak

Abellán, A. eta Pujol, R. (2015eko ekainaren 30a). ***La jubilación del baby -boom en España, ¿Motivo de preocupación?*** [Mezua blog batean]. <https://digital.csic.es/bitstream/10261/117851/1/La%20jubilaci%c3%b3n%20del%20baby-boom%20en%20Espa%c3%b1a.pdf>

Álvarez, J.C. (2022ko urtarrilaren 13a). ***Tabla Comparativa De Modificaciones De La LGSS Por La Ley 21/2021 Y Algunos Apuntes Sobre La Revalorización De Pensiones Y El Mecanismo De Equidad Intergeneracional Establecidos En La Ley 21/2021, De 28 De diciembre, De Garantía Del Poder Adquisitivo De Las Pensiones Y De Otras Medidas De Refuerzo De La Sostenibilidad Financiera Y Social Del Sistema Público De Pensiones.*** [Mezua blog batean]. <https://grupo.us.es/iwpr/2022/01/13/tabla-comparativa-de-modificaciones-de-la-lgss-por-la-ley-21-2021-y-algunos-apuntes-sobre-la-revalorizacion-de-pensiones-y-el-mecanismo-de-equidad-intergeneracional-establecidos-en-la-ley-21-2021-de/>

Aradas, A. (2022ko urtarrilaren 7a). ***Jubilación anticipada para personas con discapacidad*** [Mezua blog batean]. <https://www.cuestioneslaborales.es/jubilacion-anticipada-para-personas-con-discapacidad/>

- Bankinter. (2022, urtarrilak 29). *¿Cuál es la pensión máxima de jubilación en 2022?* [Mezua blog batean]. <https://www.bankinter.com/blog/finanzas-personales/pension-maxima-jubilacion>
- Blázquez, E.M. (2022ko otsailaren 21a). *La cláusula de jubilación forzosa de los convenios colectivos como límite al derecho a la jubilación: desde la política de empleo juvenil a política de empleo por razón de género* [Mezua blog batean]. <https://www.adeccoinstitute.es/diversidad-e-igualdad/la-jubilacion-forzosa/>
- Campmany, J. (2021eko martxoaren 12). *Cómo calcular la pensión de jubilación: Guía Paso a Paso 2022.* [Mezua blog batean]. <https://www.campmanyabogados.com/blog/jubilacion/calcular-pension>
- Centro de Estudios Financieros. (2021). *Una nueva reforma del Sistema Público de Pensiones del Sistema de la Seguridad Social.* Jose Antonio Panizo Robles. <https://www.laboral-social.com/sites/laboral-social.com/files/PANIZO-2021-diciembre.pdf>
- De la Cruz, S. (urriak 18, 2021). Así se calcularán las pensiones de jubilación a partir de 2022. *elEconomista.es.* https://www.economista.es/economia/noticias/11435194/10/21/Asi-se_calcularan-las-pensiones-de-jubilacion-a-partir-de-2022.html
- Dirección General de Fondos Europeos. (2021eko abenduaren 10a). *Mecanismo de recuperación y resiliencia (MRR).* <https://www.fondoseuropeos.hacienda.gob.es/sitios/dgfc/es-ES/Paginas/MRR.aspx>
- E.B. (2020ko ekainaren 16a). Vida laboral: ¿durante cuántos años se trabaja en España? *elBoletín.* <https://www.elboletin.com/vida-laboral-durante-cuantos-anos-se-trabaja-en-espana/>
- Elena Trujillo, E. (otsailak 9, 2020). *Base de cotización.* <https://economipedia.com/definiciones/base-de-cotizacion.html>
- Elvira, O. (apirilak 3). *El verdadero problema del actual sistema de pensiones.* [Mezua blog batean]. <https://patrimonia.bsm.upf.edu/el-verdadero-problema-del-actual-sistema-de-pensiones/>
- Espainiako Gobernua. (2021). *Plan de recuperación, transformación y resiliencia.* https://www.lamoncloa.gob.es/temas/fondos-recuperacion/Documents/30042021-Plan_Recuperacion_%20Transformacion_%20Resiliencia.pdf
- Inklusio, Gizarte Segurantzaren eta Migrazio ministroa. (2021eko azaroaren 18a). *Mecanismo de equidad intergeneracional.* [Powerpoint diapositiva]. La Moncloa.

[https://www.lamoncloa.gob.es/serviciosdeprensa/notasprensa/inclusion/Documents/2021/181121-MECANISMO%20DE%20EQUIDAD%20INTERGENERACIONAL_v12%20\(2\).pdf](https://www.lamoncloa.gob.es/serviciosdeprensa/notasprensa/inclusion/Documents/2021/181121-MECANISMO%20DE%20EQUIDAD%20INTERGENERACIONAL_v12%20(2).pdf)

Gizarte Segurantzaz. (2022). **Estadística de bases medias de cotización del del régimen general diciembre 2021**. https://www.seg-social.es/wps/wcm/connect/wss/7a499040-217d-44f4-96d9-f6691ac32641/BASES+MEDIAS+PF+DICIEMBRE+2021.pdf?MOD=AJPERES&CONVERT_TO=linktext&CACHEID=ROOTWORKSPACE.Z18_2G50H38209D640QTQ57OVB2000-7a499040-217d-44f4-96d9-f6691ac32641-o3wzIR2

Instituto BBVA de PENSIONES. (2022ko martxoaren 29a). **Cómo influye la jubilación anticipada en el importe de la pensión pública**. [Mezua blog batean]. <https://www.jubilaciondefuturo.es/es/como-influye-la-jubilacion-anticipada-en-el-importe-de-la-pension-publica.html>

Instituto BBVA de PENSIONES. (2021eko abenduaren 10a). **Cuánto se revalorizarán las pensiones en 2022** [Mezua blog batean]. <https://www.jubilaciondefuturo.es/es/blog/cuanto-se-revalorizaran-las-pensiones-en-2022.html>

Instituto BBVA de PENSIONES. (2022ko Otsailaren 21a). **Qué pensión cobraré si retraso mi jubilación más allá de la edad de jubilación ordinaria**. [Mezua blog batean]. <https://www.jubilaciondefuturo.es/es/blog/que-pension-cobrare-si-retraso-mi-jubilacion-mas-alla-de-la-edad-de-jubilacion-ordinaria.html>

Jiménez, A. (apirilak 28, 2022). Las novedades que entran en vigor sobre la jubilación activa en 2022. **elDiario.es**. https://www.eldiario.es/responsables/novedades-vigor-jubilacion-activa-2022_1_8948748.html

Laboroteca. (2022ko otsailaren 28a). **Jubilación anticipada a los 61 años (o 62 años)** [Bideoa]. Youtube. <https://www.youtube.com/watch?v=utWgmJuXXBE&list=PLnO90xWCL434OM3jor0Ou4v9qldT6pcyy>

Laboroteca. (2022ko otsailaren 28a). **Jubilación anticipada 2022. Jubilarse a los 63 años** [Bideoa]. Youtube. <https://www.youtube.com/watch?v=o8Gzqghselc&t=4s>

Los jubilados anticipados con largas carreras de cotización tendrán un plus en su pensión. _____ (irailak 16, 2021). **elEconomista.es**. <https://www.economista.es/economia/noticias/11394467/09/21/Escriba-confirma-que-los-jubilados-anticipados-con-largas-carreras-tendran-beneficios-en-su-pension.html>

Mapre. *¿Qué es la tasa de reemplazo en el sistema de pensiones?* [Mezua blog batean].
<https://www.jubilacionypension.com/planifica-tus-ahorros/que-es-la-tasa-de-reemplazo-en-el-sistema-de-pensiones/>

Nazio Batuen Erakundea. (2019ko ekainaren 17a). *La población mundial sigue en aumento, aunque sea cada vez más vieja.*
<https://news.un.org/es/story/2019/06/1457891>

Olías, L. (2022ko maiatzaren 24a). El Gobierno afronta el segundo bloque de la reforma de pensiones bajo la atenta mirada de Bruselas. *elDiario.es*.
https://www.eldiario.es/economia/gobierno-afronta-segundo-bloque-reforma-pensiones-atenta-mirada-bruselas_1_9018561.html

(2022). Que beneficios tiene demorar tu jubilación. *La Revista de la Seguridad Social*.
<https://revista.seg-social.es/-/20220321-guia-jubilacion-demorada2>

Redacción Uppers (2022). *¿Te jubilaste anticipadamente? Más de 100.000 personas siguen sin cobrar el plus en su pensión.* *Uppers*. https://www.uppers.es/economia-y-dinero/pensiones-y-jubilacion/plus-jubilados-anticipados-carreras-larga-cotizacion-sigue-congelado-be5ma_18_3320898207.html

Tortuero, J.L. (2021, azaroak 11). El Mecanismo de Equidad Intergeneracional. *Aedtss*.
<https://www.aedtss.com/wp-content/uploads/2021/11/MEI.pdf>